

Bidaxune

Aurkibidea

Udalerria: Bidaxune

Sarrera



Nafarroa Behereko udalerria da, Bidaxuneko kantonamenduko burua. (Argazkian, Agramondarren gaztelua, [Wikipediatik](#) hartua)

- **Biztanleak:** 1.364
- **Euskaldunak:** %15,25

Ahotsak.eus-eko datu orokorrak

- Hizlariak: **1**
- Zintak: **1**
- Pasarteak: **6**
- Transkribatutakoak: **0**
- Audioak: **0**
- Bideoak: **6**

Proiektuak

- Periferiaren mugak

Hizlariak

Dominika Mendiboure



Kanbon jaio arren, Bidaxunen hezi da Dominika. Etxean beti euskaraz ikasi du, eta Bidaxuneko eskolara joan zenean izan zuen frantsesarekin lehenengo harremana. Inguru erdaldun batean bizi den arren, euskara beti oso presente izan du.

Pasarteak gaika

Herri honetan landu eta transkribatu diren pasarteak, gaika antolatuta.

Transkripziorik gabeko pasarteak

Ondorengo pasarteak gaika landuta eta kodifikatuta daude, baina oraindik transkribatu gabe.

1. Euskararekin izandako harremana (BDX-001/001)

Dominikak etxean beti egin du euskaraz. Hala ere, eskola frantsesera joan zen eta pixkanaka euskara galdu zuen. Gero euskaltegietan berriz berreskuratu zuen.

2. Kanbon euskara gehiago Bixaxunen baino (BDX-001/002)

Dominika Kanbon jaiotakoa da, baina, txikia zela, Bidaxunera joan zen bizitzera. Kanbon euskara gehiago egiten da Bidaxunen baino.

3. Bidaxuneko euskararen egoera (BDX-001/003)

Bidaxunen euskara toki gutxitan egin daitekeela esaten du Dominikak. Hala ere, ez dago horren gaizki ikusia. Gau-eskolek arrakasta handia izaten dutela dio.

4. Periferian bizitzearen sentipena (BDX-001/004)

Periferian bizitzearen sentipen handia du Dominikak; batez ere hizkuntzaren aldetik, ez delako euskaraz egiten. Geografikoki ere Bidaxune Frantziako mugaren ondoan dagoela nabaritzen da.

5. Okzitaniera (BDX-001/005)

Bidaxunen okzitanierak garrantzia handiagoa duela dio Dominikak. Gaur egun eskolan umeek okzitaniera ikasten dute euskara baino lehen.

6. Euskararen alde gogor egin behar da (BDX-001/008)

Euskara kaleetan entzutea nahi badugu, Dominikaren ustez, gauzak garbi izan behar dira, jakin behar da benetan zer nahi dugun.

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com